

## ITURRI BILA

*Joxe Manuel Odriozola*

**"Hezkuntza eleaniztunaren alde psikolinguistikoak", Jim Cummins, in *Hezkuntza Eleaniztasunari Buruzko I. Nazioarteko Jardunaldiak*, 135-152 orr., Gaztelueta Fundazioa, Areeta-Getxo, 1993.**

Jardunaldiok Gasteizen eratu ziren 1992ko azaroan. Eta oraintsu argitaratu dira han aurkeztutako txosten eta lanak. Liburuia elebiduna da: alde batetik erdaraz dator, eta bestetik euskaraz. Euskararen tratamenduari dagokionez, zabarkeria nabaria da zenbait lekutan: horretarako ez dago liburuaren sarrera eta izenburua bera irakurri besterik.

Txostenen sailean lanok ageri zaizkigu zein bere egilearekin: "Hizkuntz gatazkak Europa eleaniztunean. 1993rantz begira", Peter H. Nelde; "Hezkuntza eleaniztuna espainol Estatuan", Miquel Siguan;

"Hezkuntza eleaniztuna Euskal Herrian", M. Karmen Garmendia; "Hezkuntza eleaniztunaren alde didaktikoak", Ignasi Vila. Komunikazioak deritzan atalean, berri, hurrenez hurren, lanok datozkigu: "Inmersioaren esperientzia", Joaquin Arnau; "Erabileraren garrantzia hizkuntza berri baten eskurapenean", Josep Maria Artigal; "Idatzi: zertarako? hezkuntza eleaniztun proposamen batean", Ana Teberosky; "Hirugarren hizkuntzaren ikasketa", Jasone Cenoz. Eta azkenik, mahaingurua izeneko ekitaldien barnean, besteok datoz: "Beste herrietako esperientziak. Luxembourg adibide gisa", Miquel Siguan; "Irakas-kuntza eleaniztuna eskolaurre hezkuntzako zenbait esperientziatik ikusita", Josep Maria Artigal; "Hezkuntza elebiduna Katalunian", Igasi Vila; "Lauaxeta ikastola, hezkuntza elebidunaren eredu", M<sup>a</sup> Teresa Ojanguren; Hezkuntza eleaniztu-

na", Ernest E. Behle; "Ingelesaren erabile-  
ra beste zenbait curriculum-arloaren ikas-  
kuntzarako (Gaztelueta ikastetxean gara-  
tutako esperientziak)", Luis Fernando  
Goyeneche eta "Zenbait herritako espe-  
rientziak", Jim Cummins.

Jim Cummins-ek, beraz, bi lan aurkeztu  
zituen: txostenen sailean bat, eta mahain-  
guruen atalean bestea. Bigarren hau ere  
gogoan izango dugu hemen egin behar  
dugun iruzkinean. Dakigunez, heziera ele-  
bidunaren alorrean, inork ezer jakiteko-  
tan, hori Cummins jauna dugu. Berari zor  
dizkiogu gure artean irakaskuntza euskal-  
dunaren ondorioz biztu ziren hainbat kezka  
argitzea eta zehaztea: ez ote ginen bada  
ari "astakeria" pedagogikoren bat egiten,  
erdal eskolameei euskarazko murgilpen  
metodo hutsa eta gordina aplikatzean?  
Egun, bere jakintza zabalaren itzela mun-  
duko herrialde askotara iritsi denez, han  
eta hemen, aditu eta jakitun ez ezik, ahol-  
kulari ere bada: Eusko Jaurlaritzakoa, bes-  
teak beste.

Gasteizko Jardunaldiotan aurkeztu diz-  
kigun tesi eta proposamen gehienak le-  
hendik ezagunak dira bere aurreko lanen  
irakurle denarentzat. Hemen ez ditugu,  
labur beharrez, bere lan teoriko eta enpi-  
rikoen zerrenda zehatzik azalduko. Gure  
ustetan Gasteizen jorratu zituen auzi azpi-  
marragarrienak dakartzagu hona, euska-  
razko irakaskuntzaren egungo zoria buru-  
tik kendu gabe. Diogun orobat, bere ideia  
eta proposamen hauen esperimendu eta  
euskarri teorikotzat, Irlanda, Kanada, Es-  
tatu Batuak eta Zelanda Berriko fenome-  
no eta datuak darabiltzala.

Elebitasuna hezkuntz sistemaren bai-  
tan txertatzeko saioek eztabaida eta za-  
lantza handiak sortarazi dituzte beti. Orain  
Estatu Batuetan bizi omen da giro hori  
bera. Baina Europa aldeko hizkuntza mi-  
norizatueta ere ez zuen garai batean  
onespen handirik: "Garai batean gutxien-

go ingurunetik etorritako ikasle askok es-  
kolan zailtasunak aurkitzeaz gain ahozko  
I.Q. (Adimen Koeffizientea) frogetan haur  
elebarrak baino emaitza eskasagoak  
izaten zituen. Aurkikuntza hauen ondorioz  
ikertzaileek 1920 eta 1960 artean elebita-  
sunak haurren baitan hizkuntza trabak eta  
nahasketa kognitiboa sortarazten zuela  
pentsatzen zuten". Hezkuntza elebidunak  
beregantatu zuen ospe kaxkar horren itzal-  
pe pedagogiko-ideologikoan babestu zi-  
ren, Euskal Herrian ere, gerraurreko aha-  
legin-saio haiek: Eusko Ikaskuntzaren gi-  
daritzapean egindako lanak eta eman-  
dako urratsak hor daude lekuko. Besterik  
ezean, ama-hizkuntzaren ezinbesteko le-  
kua aitortu nahi izan zioten ikasle minori-  
zatuari, bigarren hizkuntza menderatzai-  
lea ikasteko zubi gisa.

Hezkuntza elebidunaren alde egoteko  
arrazoiak, ordea, badu oinarri sendoago-  
rik egoera minorizatueta. Elebitasun ken-  
garri makur hura, euskal eskolumeak  
mendez mende jasan behar izan duena,  
elebitasun osagarri ordezkatzeko auke-  
ran dago erdal eskolumea orain hemen.  
Bat datoz munduan zehar eta hemen egin  
diren hainbat ikertzaile puntu honetan:  
eskola-hizkuntza, botere-hizkuntza ez izan  
arren, hizkuntza horrek ez duela funtsean  
deus galtzekorik. Hemengoari buruz hi-  
tzok hartu dizkiogu Cummins-i: "Beraz, D  
edo B eredu eskoletara doazen hau-  
rrek, denbora luzea euskaraz ematen du-  
tenek, A eredu eskoletara doazen hau-  
rrek bezain espainiera zuzenean mintza-  
tzen direla".

Hizkuntz ereduaren errepassoa ere egiten  
du, Kanadako emaitzetan oinarriturik. Ja-  
kingarriak dira guretzat horiek, hemen  
baikabiltza eredueta oinarritutako irakas-  
kuntza noragabe honetan: Katalunian  
ohartu bide dira, eskolaren bidezko hi-  
zkuntz normalkuntzan urratsik emango  
bada, ereduak gaintu eta murgiltze-



programa ezarri beharra dagoela. Horixe da, hain zuzen ere, ikerketa guztien ikasbi-dea: "Beraz, A ereduko programak ez ziren batere arrakastatsuak garai batean, ez eta orain ere. Halere, Kanadako murgiltze-programen emaitzak askoz ere arrakastatsuagoak direla ematen du. Murgiltze-programetara joan ziren haurrek bestelako bigarren hizkuntzako programetako haurrek baino frantsesa askoz ere jatorragoa garatu zuten". Guztiarekin ere, ez dirudi D eredu batek ere, hizkuntz gaitasunari dagokionez, ikasle-hiztun orekatuak sortzeko ahalmenik duenik. Zentzu horretan mintzo zaigu: "Hala eta guztiz beren trebetasun sortzaileari dagokionez, hutsune handia dago, bai eta hizketa eta idazketari dagokionez ere. (...) Ez du jatorrizko hiztunaren ñabardurarik izango, haurrek akats gramatikalak izango dituzte, baina halere, maila altukoa izango dute". Ikusten denez, murgiltze-metodoak berak ere muga nabarmenak ditu Kanadan. Zer ez du izango hemen, bi hizkuntzen statusa eta erakarpen-indarra hangoarekin alde-razina direnean (hots: Quebec-en frantsasarena eta hemen euskararena)?

Duela urte batzuk Donostialdeko ikastoletan ikerketa bat burutu zen Ikastolen Elkartek eraginda. Ikastoletako zenbait guraso, nonbait, kezkatzen hasia zegoen ikastetxe hauetan irakasten zen alderdi akademiko-kognitiboaz. Ez ote zen bada agian erdal irakaskuntzakoaren pareko izango. Ez ote ziren bada ikastoletako eskolomeak, jakintza-gaien alorrean, besteak bezainbat horniturik eta jantzirik ateratzen. Cummins-i zor zaio, "Elkarrekin-tzako pedagogiaren printzipioa" formulatu izana, eta hainbestean, oraintxe aurkeztu dugun kezka horri modu zientifiko batez erantzun izana. Lerrokada luze eta mamitsu honetan adierazten digu hezkuntz eduki akademikoen auzi hau: "Hirugarren, ondokoarekin zihur egon daitezke: gehiengo nahiz gutxiengoaren ikasleentzat gutxi-

goaren hizkuntzan denbora emateak ez du gehiengoaren hizkuntzan perfomantzia akademikoko maila baxuagorik ekarriko, beti ere irakaskuntza programa gutxiengoaren hizkuntzan gaitasun akademikoak garatzeko eraginkorra bada. Hau honela gertatzen da funtzionamendu kontzeptual eta akademikoaren maila sakonagoetan, hizkuntzatik hizkuntzara teilakapen edo elkarreragina garrantzitsua delako. Hizkuntza batean garatutako eza-guera kontzeptualak beste hizkuntzako inputa ulergarri bihurtzen laguntzen du".

Zelanda Berriko esperientzia emankorra aipatzen digu azkenik. Jatorrizko *maoriar* hizkuntza abiada biziko ordezkape-nean amildurik zihuala ikusita, neurri batzuk hartu zituzten bere alde. Eta horien artean hizkuntz ikaskuntza goiztiarra arras oparoa dela frogatu dute. Ez hori bakarrik: hizkuntz normalkuntzak baduela bere berreskurapen erritmo-legea; ezin dela alegia, gurean bezala, moteltasunaren antzutasunean jausi. Hona, besterik gabe, gurera ere luzaro baino lehen aldatu beharko genukeen berreskurapen-eredua: "Komunitatea hizkuntza habiak zeritzonekin hasi zen. Hau da, haurrak jaiotze berri zirenetik, haurrek sei hilabete inguru zutene-tik, eskolaurre programetara bidaltzen zituzten, bertan elkarrekintza hizkuntza maoriera izango zelarik.

"Honen ondorioz, eskolaurre mailako hizkuntza horren hiztun belaunaldia sortarazi dute. Beraz, hizkuntza arriskutan edo galtzeko zorian dagoen egoeraren aurrean bagaude, hizkuntza berpizteko modurik mingabekoena ahalik eta goizen hastea da".

**Joxe Manuel Odriozola**  
*Euskal Herrian Euskaraz-eko kidea*